

Prentsa oharra

Elkartasun Zentimoak programaren elkartasun kausa berria

EROSKI ETA HAREN BEZEROAK, GAITZ NEURODEGENERATIBOAK DITUZTEN FAMILIEI LAGUNTZEN

- Gaixotasun Neurodegeneratiboan Espainiako Aliantzarekin kolaboratzen ari da EROSKI, Alzheimerra, Parkinsona, Esklerosi Anizkoitza, Gaixotasun Neuromuskularrak eta Albo Esklerosi Amiotrofikoa duten familiei laguntzeko
- *Elkartasun Zentimoak* EROSKIren urteroko programa bat da, bezeroek dohaintzak egin ditzaketena hautaturiko gizarteko zenbait kausaren alde; kausa horiek hautatzeko, aintzat hartzen da 3.500 bazkide-bezero baino gehiagoren iritzia

Elorrio, 2021eko apirilaren 9a.- [EROSKI](#)k beste elkartasun kausa bat jarri du martxan *Elkartasun Zentimoen* programaren harira, gaixotasun neurodegeneratiboak jotako familiei laguntzeko: Alzheimerra, Parkinsona, Esklerosi Anizkoitza, Gaixotasun Neuromuskularrak eta Albo Esklerosi Amiotrofikoa. Maiatzaren 5era arte luzatuko da kanpaina.

[Gaixotasun Neurodegeneratiboan Espainiako Aliantza](#)ko paziente elkartean jarduerak indartzeko erabiliko dira dohaintzak; hona hemen elkarteak: [ELAren Espainiako Elkarte \(AdELA\)](#), [Gaixotasun Neuromuskularren Espainiako Federazioa \(ASEM Federazioa\)](#), [Alzheimerren Espainiako Konfederazioa \(CEAFA\)](#), [Esklerosi Anizkoitzaren Espainiako erakundea \(EME\)](#) eta [Parkinsonaren Espainiako Federazioa \(FEP\)](#).

"Gaixotasun neurodegeneratiboek jotakoentzat, nahitaezkoa da eskura izatea tratamendu egokiak eta behar bezalako osasun arreta, arreta hori ez dadila egon murriztua, gaixotasunari dagokion moduan erantzuteko eta areagotzeari edo okerragotzeari aurrea hartzeko. Era berean, beharrezkoa da eskura dauden baliabideak hobetzea eta dauden babes guztiak ezagutaraztea haien bizi kalitatea hobetzeko balio izan dezan. Horregatik, EROSKI, gure bezeroekin batera, kalte dunen elkarteekin kolaboratu nahi dugu gure gaixoen eta haien familien aldeko laguntza zabaltzeko eta indartzeko", azaldu du EROSKIren Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak, Alejandro Martinez Berriochoak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

"Kopuru globaletan, kalkulatzen dute 60.000 lagun inguruk dutela gaixotasun neuromuskularren bat Espainia guztian. Parkinsonen Gaixotasunak 160.000 espainiarri eragiten dio, eta bost kalte duntatik batek 50 urte baino gutxiago du. Urtero beste 900 Albo Esklerosi Amiotrofikoren kasuak erregistratzen dira eta bost orduan behin Esklerosi Anizkoitzaren kasu bat, guztira 55.000 lagun baino gehiago daudelarik gaitz horrek jota. 65 urtetik gorakoek %10ek eta 85 urtetik gorakoek %50ek Alzheimerra du gure herrialdean. EROSKIren moduko erakundeek laguntzarekin, jarrai dezakegu behar gaituzten guztiei laguntzeko lanean", esan du Neuroaliantzako Pedro Carrascalek.

Milioi bat euro Elkartasun Zentimoen programaren bitartez

EROSKI eta haren bezeroek lortu dute jada milioi bat euro bideratzea Elkartasun Zentimoen programa iraunkorraren bitartez, azaroaren 5ean martxan jarri zenetik. Orain arte, askotariko proiektuetan erakutsi du elkartasuna; besteak beste: Elikagaien Bankuei lagundu die elikagaiak emanez familia zaurgarrientzat; UNICEFekin, Mugarik Gabeko Medikuekin eta ACNURekin ere jardun da garapen bidean diren herrialdeetako haurrak txertatzen laguntzeko; Minbizia duten Haurren Gurasoen Espainiako Federazioari ere lagundu dio haur minbiziaren borrokan, baita Ana Bella Fundazioarekin eta Soledad Cazorla Diru Funtzarekin ere genero indarkeriaren biktima izan diren emakumeei eta adingabeei laguntzeko.

EROSKIren bezeroek dohaintza txiki bat egin dezakete aldi bakoitzean dagoen ongizako kausarako erosketa txartelarekin edo sakelakoarekin ordaintzen duten aldiro. Ekarpena, beti borondatezkoa eta isilpekoa, 10 zentimoko kopuru txiki sinboliko bat da 5-30 euroko erosketetan eta 20 zentimokoa 30 eurotik gorakoetan.

Laguntza hartzen duten erakundeak ere aldatu egiten dira maiztasun batez. Haiek hautatzeko, aintzat hartzen da 3.500 bazkide-bezerok baino gehiagok aldi bakoitzean nolako beharrak eta kezak dituzten. 2021ean, erakunde hauek egongo dira lagundu beharrekoen zerrendan: haurren alde ari direnak, bazterketa arriskuan direnei laguntzen dihardutenak, minbizia borrokatzen dutenak, desgaitasunak dituztenei laguntzen dietenak, gaixotasun arraroen aurka dihardutenak eta ingurumenaren alde dihardutenak.

"Elkartasun Zentimoak izeneko programa tresna eraginkorra da gure bezeroek modu errazean bidera dezaketelako bere konpromisoa gizarteko kausa askotarikoek alde. Programa iraunkor bat da, eta haren bitartez alor askotako erakundeek lagunduko diegu, betiere norabide jakin batean: gehien behar dutenei laguntzea", azaldu du Osasun eta Iraunkortasun arloko zuzendariak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

Hasieratik ari da EROSKI gizarte ekintza askotan, bereziki bizi ohitura osasungarrien promozioan, kontsumitzailearen hezkuntzan, ingurumenaren defentsan eta elkartasunean. 2020an, EROSKIk 9 milioi euro baino gehiago eman dizkie janaritan, lehen mailako produktutan, eta ekarpen ekonomikotan askotariko gizarte erakundeei, COVID-19ak eragindako gizarte krisiak markatutako urte honetan.

Neuroaliantzari buruz

Gaixotasun Neurodegeneratiboen Espainiako Aliantza lanean ari da gaixotasun neurodegeneratiboek jotakoen eskubideak eta zereginak sustatzeko. Espainiako pazienteen interesak defendatzen dituzten erakundeen ordezkartzaren buru da, eta ordezkartza horretan, koordinazio eta kudeaketa lanetan aritzen da gaixoen eta familiakoen bizi kalitatea hobetzeko xedez.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)